



BILBOKO UDALAREN ADIERAZPENA

Behealdean sinatzen duten udal taldeek, Hazte Oir Plataforma transexualitatearen kontra bultzatzen ari den kanpainaren aurrean, agerian utzi nahi dute euren gaitzespen irmo eta aho batezkoa, horren inguruko egiten dituen kontsiderazioaz adierazteaz batera.

Hedabideen bitartez jakin dugunez, martxoaren 9 eta 10erako aurreikusita dago "Hazte Oir" erakundeak jarritako autobus bat Bilbora etortzea, mezu hau aldarrikatuz: "Mutilek zakila dute. Neskek bulba dute. Ez zaitzatela engainatu. Gizonezko jaiotzen bazara, gizona zara. Emakumezko jaiotzen bazara, emakumezko izaten jarraituko duzu". Horren bidez, erantzuna eman nahi zaio adingabe transexualen familien "Chrysallis" elkarteak abiatutako kanpainari. Orain dela aste batzuk, Euskal Herriko hainbat instituzio eta mugimendu sozial, feminista eta herritarrek kanpaina horren aldeko atxikimendua adierazi zuten eta haren kontra gertatutako erasoak salatu zituzten.

Bilbokoa gizarte tolerantetara, inklusibo eta begirunetsua da, eta ez du onartzen horrelako erasorik, pertsonen askatasunaren aurka zuzentzen baitira. Bilboko Udalaren ardura da pertsona transexualen eskubideak aitortzea eta babestea; eta bere ardura da, halaber, eskubide horien erabilera bermatzea gizarte-bizitzaren alor guztietan, eskubide horien aplikazio erreala eragotzi edo oztopatu lezaketen trabak ezabatuz.

Bilboko gizartea ez da identifikatzen horrelako mezuekin, eta, hortaz, Bozeramaileen Batzorde hau kanpaina transfobia horren kontra agertzen da, giza eskubideen eta pertsonen erabakitze-eskubidearen aurkakoa delako, diskriminatzailea delako eta gorrotoa zein transfobia bultzatzen dituelako. Kanpainak dibertsitatearekiko errespetuari erasotzen dio, batez ere generoko dibertsitate sexualari eta trans kolektiboak merezi duen errespetuari.

DECLARACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

Los Grupos Políticos abajo firmantes, ante la campaña contra la transexualidad impulsada por la Plataforma Hazte Oír, quiere dejar constancia de su contundente e unánime rechazo al tiempo que manifiesta sus consideraciones al respecto.

Según hemos podido conocer a través de los medios de comunicación, está previsto que los días 9 y 10 de marzo visite Bilbao un autobús promovido por la organización "Hazte Oír" con el mensaje "Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Que no te engañen. Si naces hombre, eres hombre. Si naces mujer, seguirás siéndolo", en respuesta a la campaña sobre la transexualidad infantil promovida por la asociación de familias de menores transexuales "Chrysallis". Hace escasas semanas instituciones, movimientos sociales y feministas y ciudadanos y ciudadanas de Euskal Herria mostraron su adhesión a dicha campaña y denunciaron los ataques que sucedieron contra ella.

La de Bilbao es una sociedad tolerante, inclusiva y respetuosa, que no permite este tipo de ataques contra la libertad de las personas. Es responsabilidad del ayuntamiento de Bilbao el reconocer y proteger los derechos de las personas transexuales y garantizar el ejercicio de estos derechos en todos los ámbitos de la vida social, eliminando todos los obstáculos que pudieran impedir o dificultar la aplicación efectiva de estos derechos.

La sociedad bilbaína no se identifica con estos mensajes por lo que esta Junta de Portavoces se posiciona en contra de esta campaña transfobia al ser contraria a los derechos humanos, contraria al derecho a decidir de las personas, discriminatoria, incitar al odio y a la transfobia, contraviniendo el respeto a la diversidad y en particular a la diversidad sexual de género y el respeto al colectivo trans.



Agiri honen bitartez, gure sostengua eta gure aitortza adierazi nahi dizkiegu espresuki pertsona transexualei, batez ere adingabeei, horiek babes handiagoa behar baitute euren sexu- edo genero-orientazioa identifikatzeko uneetan. Hazte Oír autobusa gure hirira etortzearen aurka agertzen gara eta autobus hori Bilbora bidali ez dadila eskatzen dugu. Halaber, transfobiaren aurka lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, LGTBI kolektiboarekin batera, horrelako erasoak berriro gertatu ez daitezen eta pertsona guztiak euren eskubide guztien jabe izan daitezen.

Bilbon, 2017ko martxoaren 1ean

A través de este comunicado queremos dejar constancia de nuestro apoyo y reconocimiento a las personas transexuales y especialmente a los y las menores, quienes requieren de una protección mayor en los momentos de identificación de su orientación sexual o de género. Rechazamos la presencia en nuestra ciudad del autobús Hazte Oír y solicitamos no se envíe dicho autobús a Bilbao. Así mismo, nos comprometemos a seguir trabajando junto al colectivo LGTBI en contra de la transfobia para evitar que agresiones como estas se vuelvan a dar y para que todas las personas sean dueñas de todos sus derechos.

Bilbao, a 1 de marzo de 2017

EAJ/PNV

EH BILDU

PSE

UDALBERRI

GOAZEN BILBAO